

Bilduma Lehen gaia : hizkuntza, ikasle/irakasleen arteko komunikazioa

Taldeek ekarpena (2018eko erakasleen gogoetak)

- **Zer eskatzen ahal zaio ziklo hortako haur bati euskararen erabilpenari buruz ? Zer abantaila eta zer oztopo (adinari buruz)?**

Zikloko taldetxotan

Lehen zikloa :

Kantuekin, kontinekin, jestuekin ainitz gauza pasaraz daiteke.

Plazerraren garrantzia (dantza, joko...) azpimarratua da. Proiektuek plazer hori susta dezakete.

Irudimena landu behar da (asteburua kondatzeko, irudi bat hautatuz...).

Entzumena lantzen da lehen lehenik, erabilpena aintzin.

Urteka berexen badugu :

3-4 urte : ulertzea, olerki eta kantuen errepikatzea, hitz batzuk

4-5 urte : hitz gehiago, ipuinak errepikatu, erranaldi bat edo bi

5-6 urte : egiazki hitz egiten hasten dira eta gai dira euskaraz komunikatzeko.

Ama eskolako adinean :

Ez dira mugatzen, ez dira lotsatzen, haientzat euskararena joko bat da. Bestalde, euskaraz erranaldi gakoak eginez, harremana errexten da.

Aldiz, harremana haien artean euskaraz sortzea zailago da. Gelatik kanpo euskaraz guti ari dira. Oro har, ikasia dena berriz erabiltzeko aukera guti dute/dugu, frustrazioa sortzen da.

Behar zaie haurrei eman hitzegiteko aukera !! (erritualetan, antzerkitxo, galde erantzun, elgar laguntzeko aukera eman...)

Bigarren eta hirugarren zikloak :

Zorrotzak izan behar dugu erranaldi osoak galdetzeko (mailen arabera konplexifikatuz) eta bakarrik euskaraz mintza daitezten. Adibidez, lehen hitza beti euskaraz emanez...

Harreman guziak euskaraz galdatu behar dira (erakaslearekin bai eta haurren artean), erranaldi ximpleak akulatuz, deklinabide ximpleak landuz. Horrek energia ainitz galdetzen badu ere erakasleari, ez ahantz : gelan, euskara nagusi !

Errepikapena biziki inportanta da, eguneroko erranaldiak ongi ziblatzea eta erraitea (galderak adibidez) ; hortako denbora hortan pasa behar da.

Behar zaie haurrei eman hitzegiteko aukera !! (erritualetan, antzerkitxo, galde erantzun, elgar laguntzeko aukera eman...)

Auto-ebaluaketa sistema astero plantan emanez, beren hizkuntzari buruzko indarrak ere baloratzen ahal dira.

Hortako, kriterio zehatzak eman behar dira (adibidez, taldeak ebaluatzen badu ikasle baten liburu aurkezpen bat, behar dute denek jakin zer diren irizpideak).

Hortako erakasleek behar lukete formakuntza zehatz bat.

- **Zer asma daiteke ulermena lantzeko itzulpena lerratu gabe, adin hortako ikaslekin (joko, norberaren jarrera, antolaketa...) ?**

Lehen zikloa :

Ainitz antzeztu behar da, jestu ainitz erabili, haurrek parte hartuz. Behar dira ere irudiak baliatu, bai eta emozioeri lotu ; Gauza konkretuekin (eguneroko biziarekin) ere lotura erregulariki egin behar da ;

Ez ahantz bozaren garrantzia : doinua, erritmoa aldatu, errepikapena...

Maleta bidaiaria aipatua izan da. Hiztegia lantzeko jokoak baliatu behar dira.

Ez ahantz ere bildumak atxikitzea, bizi izan dituzten ateraldi, proiektu, sorkuntza edo esperientzietaz. Artetan berriz ateratuz (edo haurren eskutan utziz, denbora libreetan), hiztegia berriz gogorat ekartzeko ariketa baliosak dira.

Erritualetan esaldiak errepikatu, antzeztu eta memorizatu, eta gero eta luzeagoak erakatsi, mailaka.

Etxekoekin ere harremana mantendu edo sortu behar da (bideoak, kantuak, haurren grabaketak, eskolaren blog-ean eman), talde giro bat sortu, eskola ideki burasoei !

Eskolatik kanpo diren euskarazko gertakariak jakinarazi behar zaizkie, gure errola da hau ere.

Bigarren eta hirugarren zikloak :

Ohartzen gira haurren mintzarazteko, irudiak beharrezkoak direla (Urtxigalen ariketak aparte), antzeztu behar direla elgarrizketak eta olerkiak, eta jokoen bitartez, talde tikitian ahalaz, hiztegia ongi landu daitekela.

Proiektuak beharrezkoak dira haurren motibatzeke, hizkuntzaren arabera.

Hiztegia/lexikoa ikastea aste guzietan beharrezkoa da, formalki, ondotik erranaldiak eginez berriz enpleatzeko aukera emanez.

Erritualetan sortu behar dira, ama eskolan bezala, kantu eta ipuinak.

Gelaren indarra (« jakitatea ») baliatu behar da, falta den hitz baten atxemaiteko adibidez. « Nor/nork » txapelketak ere asma daitezke...

Beharria lantzeko, irratiko emanaldiak entzun daitezke gelan.

Pentsatu behar da euskara arduradun bati (« euskal zaina », gelako edo taldetxoetan).

Progresioetan helburuak argi eta ongi pentsatuak izan behar dira, eskailer forman, gaika (adib CP ahoz bakarrik, CE1 idatzi pixka bat sartuz).

Azkenik, burasoak nola motibatu ? haiek ere beren etxeko lanak ukanez ?